

# LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



## Hirugarren Hiruhilekoa 2018

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide



*Txosten honek, 2018ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neur-tzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).*

## **Edukia**


Testuinguru Ekonomikoa .....	4
Lanbiden erregistratutako langabezia .....	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren .....	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8

## Testuinguru Ekonomikoa

### 2018ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,6ko hazkundea izan du; 2018 urte osoari dagokionez %2,8ko hazkundea aurreikusten da

Eustat-en arabera, 2018ko hirugarren hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko %2,6ko hazkundea izan du aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz. Erregistratutako tasa aurreko hiruhilekoan baino 3 hamarren baxuagoa izan da (%2,9). Beraz, bi epealdi kateatu ditu hazkunde txikiagoak jasoz. Moteltzeko joera leun hori ez da asko urruntzen Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurkeztu zuen aurreikuspenetik.

Hala kontsumoa nola inbertsioa aurreko epealdian baino gutxiago hazi ziren. Lehen kasuan, azken kontsumoaren urte arteko tasa %2,0an kokatu zen, bigarren hiruhilekoko baino puntu erdi bat beherago. Apaltze hori batez ere kontsumo publikoan hauteman da, baina pribatuan ere bai, hiru hamarrenetan galgatu baitzuen bere erritmoa (%2,3). Beste aldetik, kapital eraketa gordinak zortzi hamarrenetan moteldu zuen bere gehikuntza, nahiz eta oraindik %4,0ko igotera eskuratu zuen.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko abendua" txostenak


**Europako** Ekonomiari dagokionez, moteltze arina aurreikusten da. Hirugarren hiruhilekoan erregistratutako tasa %1,7koa izan da, aurreko urteko hiruhileko berdinean lortutako baino (%2,8) 1,1 puntu baxuagoa.

Izan ere, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan lortutako tasa izan da azken bost urteetan lortutako tasarik altuena.

**Espainiar ekonomiak** urte arteko %2,5eko hazkunde tasa izan du, aurreko hiruhileko hazkunde tasa berbera mantenduz.

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspenak %2,0 eta %1,7koak dira 2018 eta 2019 urterako, hurrenez hurren. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspenak apur bat altuagoak dira: %2,7 2018 urterako eta %2,2 2019 urterako.

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak hurrengo hazkundeak aurreikusten ditu: %2,8ko tasa 2018 urterako eta %2,3ko tasa 2019 urterako.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko abendua" txostena

## Lanbiden erregistratutako langabezia

**Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %2,1eko igoera izan du urteko hirugarren hiruhilekoan; +1.548 emakume eta +1.004 gizonezko**

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** igo egin da 2018ko hirugarren hiruhilekoan (2.552 pertsona gehiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 123.037 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko igoera %2,1ekoa izan da eta urte arteko jaitsiera %6,8koa.




*Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa*

**Sexuari** dagokionez, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 1.004 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta 1.548 pertsonatan emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 52.140 pertsonatan kokatu da eta 70.897 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

**Adinari** dagokionez, langabetu kopuruaren igoerarik handiena, balore absolutuetan, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (+1.223); ondoren, 16-24 urte bitarteko artean (+892), 35-44 adin tartean (+250), 55-64 adin tartean (+108) eta 45-54 adin tartean (+79).

**Lurralde Historikoei** dagokionez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duen lurraldea (+%2,5; +787). Ondoren, Bizkaia (+%2,1; +1.458) eta Araba (+%1,6; +307).



*Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa*

**Jatorriari** dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzeritaren kopurua %1,8an jaitsi da eta bertako langabetu kopurua %2,9an igo da. Lehengo kasuan langabetu kopurua 18.931 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 104.106 pertsonatan.


**Ikasketa-mailaren** arabera, Derrigorrezko ikasketak dituzten langabeak %0,5ean murriztu dira. Gainontzeko kolektiboetan langabetu kopurua igo egin da: Unibertsitate ikasketak dituztenak (+%9,3); Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (+%5,0) eta Batxilergo ikasketak dituztenak (+%4,8).

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, hiruhileko honetan langabezia igoera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin zerikusia duten jarduerak (+484); (ii) Hezkuntza (+462); eta (iii) Txikizkako merkataritza (+392). Bestalde, aipatu beharra dago langabe kopuruak hurrengo sektoreetan izandako jaitsiera: (i) Nekazaritza, Abeltzaintza (-160); Eraikinen eraikuntza (-108); eta Eraikuntzako jarduera espezializatuak (-49).

## Afiliazioa Gizarte Segurantzaz


**Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 940.047 pertsonakoa izan da, %1,4ko jaitsiera-rekin aurreko hiruhilekoarekin alderatuta**

EAEn 2018ko hirugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 940.047koa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %1,4 gutxiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,6 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzazko Ministerioa

**Sexuari** dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzazko Ministerioa

**Lurralde Historikoei** dagokionez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50). Gipuzkoan, %34koa izan da eta Araban %16koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian gertatu da afiliatu kopuruaren jaitsierarik handiena (-6.843); ondoren Araban (-4.375) eta Gipuzkoan (-2.517).


**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, hirugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (%8,8); (ii) Hezkuntza (%7,1); (iii) Elikadura eta edarien zerbitzuak (%6,4); (iv) Osasun jarduerak (%6,3); eta (v) Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantzaz (%4,9). Hala ere, hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu gehien galdu dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (-1.499); (ii) Enpleguarekin lotutako jarduerak (-843); eta (iii) Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdi-atoiak fabrikatzea (-599). Afiliatu gehien irabazi dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Elikadura eta edarien zerbitzuak (+5.830); (ii) Etxeko jarduerak, etxeko langile gisa (+2.652); eta (iii) Hezkuntza (+1.439).

**Jatorriari** dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzaz batu diren atzeritarren kopurua %0,3an igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 62.518koa izanik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %6,7koa da, afiliatu autoktonoena %93,3koa izanik. Atzeritarren artean, emakumezkoen afiliazioa %1,1 igo da eta gizonezkoen afiliazioa %0,4 jaitsi da. Lurralde Historikoei dagokionez, atzeritarren afiliazioa Araban %5,2 jaitsi da; Gipuzkoan eta Bizkaian, ostera, atzeritarren afiliazioa igo egin da (+%3,5 eta +%0,1, hurrenez hurren).

## Kontratutako pertsonak eta kontratuak

**Hirugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %1,7 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 248.290ekoa izan da**

2018ko hirugarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 131.854koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %1,7 gehiago. Gizonezkoen artean, %2,2ko beherakada egon da eta emakumezkoen artean %6,1eko gorakada.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Ikasketa-mailaren** arabera, kontratatutako pertsonen %44,7k Derrigorrezko ikasketak ditu, %22,5ek Batxilergo ikasketak, %16,2k Unibertsitate ikasketak eta %16,1ek Lanbide Heziketako ikasketak.

**Adinari** dagokionez, 2018ko hirugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 35-44 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %24,9ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek izan dute igoera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 35-44 urte bitarteko taldeak izan ezik (-%1,8).

**Jatorriari** dagokionez, kontratatutako pertsonen %85,9 bertakoa da eta %14,1ek atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu gehiago). Atzeritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%36,4), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%25,8) eta Afrika iparraldekoak (%15,7).

Hirugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 248.290 kontratu erregistratu dira (kontratutako pertsonak baino 1,9 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen jaitziera %6,0koa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

**Lan - kontratu motaren** arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %8,4a kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,8 puntu gutxiago) eta %91,6a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %39,1a kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gutxiago).

**Lurralde Historikoei** dagokienez, balore erlatiboetan, Bizkaia izan da jaitzierarik handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%7,9). Ondoren, Araba (-%5,2) eta Gipuzkoa (-%3,3). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%50,3; 124.948); jarraian, Gipuzkoa (%30,3; 75.190) eta Araba (%19,4; 48.152).

**Jarduera Ekonomikoei** dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%15,6); (ii) manufaktura industria (%14,5); (iii) administrazio jarduerak (%11,7); (iv) merkataritza (%11,4); eta (v) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%10,9). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%22,4) eta emakumezkoen artean ostalaritza (%19,3).



## Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

### Langabezia tasa %9,5ekoa izan da eta enplegu tasa %68,3koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **enplegu tasa** %68,3koa izan da 16-64 urte bitarteko pertsonen artean (%72,7 gizonezkoen kasuan eta %63,9 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 938.900ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %0,1 baxuagoa. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 496.900ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,7 gehiago) eta 442.000ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %1,1 gutxiago).

**Adinari** dagokionez, enplegu tasa handiena 35-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%84) 279.200 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%21,8) 37.300 okupaturekin. Hala ere, hirugarren hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da, 6.200 okupatu gehiagorekin (+%19,9).

**Lurralde Historikoei** dagokionez, Gipuzkoan izan da enplegu tasarik handiena (%69,9), jarraian Araban (%69,5) eta Bizkaian (%66,9). Joerarik onena izan duen lurraldea ere Gipuzkoa izan da %0,4ko igoerarekin okupatu kopuruari dagokionez.

**Jarduera Ekonomikoari** dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%71,6). Ondoren, Industria sektorea (%22,0), Eraikuntza sektorea (%5,3) eta Lehen sektorea (%1,2).

**Kontratu motari** dagokionez, soldatapekoen %68,1ek kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %31,9k aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,1 jaitsi da eta aldi baterako kontratuen kopurua %1,0. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %82,5 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,5 puntu gehiago) eta %17,5 lanaldi partzialekoak.

Hirugarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia tasa** %9,5ekoa izan da (%8,6 gizonezkoen artean eta %10,5 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 98.700

pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %7 gutxiago. Emakumezkoen kasuan, beherakada 2.900 pertsonakoa izan da, eta gizonezkoen kasuan, ostera, 4.600 pertsonakoa.

**Adinari** dagokionez, langabezia tasarik txikiena 35-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%8,4) eta langabezia tasarik altuena, ostera, 16-24 urte bitarteko taldeari (%20,3). Eboluziorik onena izan duen taldea 25-34 urte bitartekoa izan da, 7.100 langabetu gutxiagorekin (-%26,1).

**Lurralde Historikoei** dagokionez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik txikiena (%7,2), jarraian Araba (%9,9) eta Bizkaia (%10,8). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruaren eboluziorik onena Araban izan da, %7,7ko jaitsierarekin. Eboluziorik txarrena Gipuzkoan izan da, %6,2ko jaitsierarekin.

**Langabeziaren iraupenari** dagokionez, langabetuen %39,9k urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %60,1ek urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino 2,2 puntu gehiago).

**Ikasketa – mailaren arabera**, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %38k derrigorrezko ikasketak ditu eta %34k unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan beherapena izan duen hiru taldeak hurrengoak izan dira: derrigorrezko ikasketak dituztenak (-8.632); Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (-1.683) eta unibertsitate ikasketak dituztenak (-30).

**Jatorriari** dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %81 bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzeritarrak (%19) eta Europar Batasunekoak (<%1).